

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduerak lehentasunaren arabera antolatzen ditugu.

1. Produktuaren kalitatea eta pertsonalizazioa

- Entzumen-ebaluazioak egitea: Bezeroen behar espezifikoak ulertzeko entzumen-test zehatzak eskainduko ditugu.
- Audifonoen diseinua eta pertsonalizazioa: Teknologia aurreratuenarekin eta bezeroaren beharretara egokitutako audifonoak garatzen ditugu, diseinua audifonoa ia ikusi ere ez egiteko da. Nahiz eta, kontsumitzaile bakakoitzak bere diseinua aukeratu ahalko du.
- Produktuaren garapena eta berrikuntza: Etengabeko ikerketa eta garapen prozesuak, audifonoen erosotasuna, efizientzia eta iraupena hobetzeko egiten ditugu, kontsumitzaileek produktu onenak edukitzeko.



2. Bezeroen esperientzia eta arreta

- Zerbitzu pertsonalizatua: Bezero bakoitzari arreta pertsonalizatua eskaintzen diogu.
- Jarraipen eta mantentze-lanak: Audifonoen erabilera optimizatzeko aldizkako doikuntzak eta mantentze-lanak bermatzen ditugu.
- Irisgarritasun tresnak: Zeinu-hizkuntzako interpreteak, testu bidezko arreta, eta bestelako baliabide irisgarriak eskaintzen ditugu.



3. Informazioa eta heziketa

- Bezeroentzako orientazioa: Audifonoak nola erabili, mantendu eta zaindu azaltzeko tailerrak edo material didaktikoak sortzen ditugu.
- Sentsibilizazio-kanpainak: Entzumen-arazoaren inguruko kontzientziazioa areagotzeko ekintzak egiten ditu gure enpresak.
- Teknologia berriei buruz informatzea: Produktuen eguneratzeak edo hobekuntzak jakinaraztea, bezeroek aukera berriak ulertu eta aprobetxatu ditzaten.

4. Fideltasuna eta komunitate-sorkuntza

- Bezeroen komunitatea sortzea: Bezeroen artean esperientziak partekatzeko gune edo plataforma bat sortzea da gure helburua.
- Fidelizazio-programak: Bezero leialentzat deskontuak edo zerbitzu bereziak eskaintzen ditugu.

5. Marketin eta marka-posizionamendua

- Publizitatea eta komunikazioa: Enpresaren balio-proposamena modu eraginkorrean transmititzen dugu.
- Iritziak eta testigantzak biltzea: Pozik dauden bezeroak beste bezero potentzialak erakartzeko balioko duten iritziak partekatzeko ona da gure enpresarentzat.



6. Kudeaketa operatiboa eta aliantzak

- Banaketa-sare eraginkorra sortzea: Audifonoak eskuragarri egon daitezen kanal desberdinen bidez (online eta aurrez aurre).
- Osasun arloko profesionalekin elkarlana: Audiologo eta medikuekin lankidetzan aritzea entzumen-zerbitzu integrala eskaintzeko.

Hauen artean lehentasuna "Produktua eta arreta pertsonalizatua" duten jardueretan jarri behar da, hauek direlako bezeroen asebetetzea eta leialtasuna sortzeko oinarritzko zutabeak. Gainontzekoak estrategia osagarriak dira balio-proposamena zabaltzeko eta enpresaren posizionamendua indartzeko.